



EBAZPENA, 2022ko otsailaren 28koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena. Honen bidez, 2022/23 ikasturterako lan-legepeko irakasle finkoek eta hezitzaile finkoek adinaren arrazoiarengatik irakastorduak/zuzeneko arreta murrizteko deialdia ezartzen da.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko irakasle eta hezitzaileen hitzarmen kolektiboak (2004ko ekainaren 17ko EHAA) ordu-murrizketak arautzen ditu 51. artikuluan, honako hau adieraziz: *"60 urtetik gorako langileentzat ordu-murrizketak ezarriko dira. Batzorde Parekideak baldintza hori aplikatzeko formulak ezarriko ditu. Sektore horretako ezaugarri bereziak alde batera utzita, unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionario publikoen sektorean irudi horretarako erabiltzen diren antzekoak izango dira. Neurri hori 55 urtetik gorakoentzat zabal daiteke apurka-apurka, betiere langile kopurua kontuan hartuta"*.

Funtzionario Irakasleen Mahai Sektorialeko 2018ko maiatzaren 14ko Akordio Baterako Proposamenaren 11. atalean adinaren arrazoiarengatik irakastorduak murriztea jasotzen du eta hau adierazten du: *"adin batetik aurrera borondatezko erretiroa hartzeko aukerarik ez duten langileei lan-karga arintzea du proposamen honek helburu nagusia, baita belaunaldi-aldaketari laguntzea ere"*.

Batzorde Parekidea 2022ko otsailaren 15ean bildu zen gai hau aztertzeko.

Horren arabera, eta Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuaren 10. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

LEHENA.- Helburua.

Ebazpen honen helburua da adinaren arrazoiarengatik irakastorduak/zuzeneko arretaren murrizketa eskatzeko prozedura ezartzea, beronek ezarritako baldintzetan.

BIGARRENA.- Aplikazio-eremua.

Deialdi hau ondorengo langileei aplikatuko zaio:

- a) Lan-legepeko irakasle finkoak, eta hezitzaile finkoak (Hezkuntza Laguntzako espezialistak, Fisioterapeutak, Zeinu-hizkuntzako interpreteak eta Okupazioterapeutak), baldin eta 59 urte badituzte (60 urte bete gabe) abuztuaren 31n.

Irakasleei astean bi eskola-ordu murriztuko zaizkie, eta hezitzaileei, berriz, astean bi orduko zuzeneko arreta.

- b) Lan-legepeko irakasle finkoak, eta hezitzaile finkoak (Hezkuntza Laguntzako espezialistak, Fisioterapeutak, Zeinu-hizkuntzako interpreteak eta Okupazioterapeutak), baldin eta abuztuaren 31n 60 urte edo gehiago badituzte eta erretiro partziala hartzeko baldintzak betetzen ez badituzte.



Irakasleei irakastorduen heren bat murriztuko zaie, eta hezitzaileei (Hezkuntza Laguntzako espezialistak, Fisioterapeutak, Zeinu-hizkuntzako interpreteak eta Okupazio-terapeutak) zuzeneko arretako orduen herena, ebazpen honen 3. a) atalean aurreikusitakoa kontuan izanik.

HIRUGARRENA.- Baldintzak.

Bigarren ataleko langileak ondorengo baldintzak bete beharko ditu:

- a) 2022/23 ikasturterako irakasle finkoek gehienezko irakastorduak esleituta izatea (hau da, atal honetako c eta d betekizunak betetzea), eta hezitzaile finkoek (Hezkuntza Laguntzako espezialistak, Fisioterapeutak, Zeinu-hizkuntzako interpreteak eta Okupazio-terapeutak) arreta zuzeneko gehienezko orduak esleituta izatea. Hezkuntza Laguntzako espezialisten kasuan, arreta zuzeneko 30 orduetara iristen ez direnei ere onartuko zaie eskaera, baina heren bateko murrizketa gehienezko 30 orduko arreta zuzena kontuan izanda kalkulatu da, hau da, 20 orduko arreta zuzena egin beharko dute.
- b) Erretiro partzialeko egoeran ez egotea edo erretiro partziala ez hartzea 2022/23 ikasturtean.
- c) Deialdi espezifikiko bidez zerbitzu-eginkizunik edo lanaldi-murrizketarik ez izatea 2022/23 ikasturterako.
- d) Beste jarduera batzuetan (proiektuak, EGA/AKA, jantokia, zuzendaritza-karguak...) aritzeagatik edo osasun-arrazoiengatik irakastorduak murrizterik ez izatea 2022/23 ikasturterako.
- e) Bigarren jarduera batean zerbitzurik ez ematea.
- f) Gizarte Segurantzaren araudiaren arabera lor lezakeen gehienezko pentsioarekin erretiro arrunta lortzeko aukerarik ez izatea gaur egun dituen kotizazio-oinarriak kontuan hartuta.
- g) Murrizketa-orduak ikastetxeko zuzendaritzaren eskura jartzea, betiere ikastetxean eman beharreko orduak izanik.

2022/23 ikasturterako irakastorduen/zuzeneko arretaren murrizketa hori baimentzeko, baldintzak ikasturte osoan bete beharko dira (2022ko irailaren 1etik 2023ko abuztuaren 31ra).

LAUGARRENA.- Ordu-murrizketa aplikatzeko irizpideak.

Ikastetxearen premia didaktikoen eta antolaketa-premien -zuzendaritza-taldeak ezarriko ditu premia horiek- araberako irizpideekin aplikatu beharko da ordu-murrizketa.

BOSGARRENA.- Eskaerak.

1.- Eskabidea.

Eskabidea HEZIGUNEA atariaren bidez (<https://hezigunea.euskadi.eus>) egin beharko da, honako banner honetatik: "Irakastorduen / arreta zuzenaren murrizketa adinaren arazoiagatik: lan-kontratuko finkoak", eta beharrezkoa izango da eskatzailearen alde aurreko identifikazioa (NAN/AIZ + Pasahitza, edo XLNets-en erabiltzailea, izanez gero).

Eskaeran zerbitzuak ematen ari diren ikastetxeko kodea bete behar da eta horretarako I. eranskina argitaratzen da.

2.- Dokumentazioa.

Erretiro partziala hartzeko eskatzen den adina duten langile finkoek lan-bizitzaren txostena aurkeztu beharko dute, erretiro partziala har dezaketen ala ez egiaztatzeko. 2022/23 ikasturterako, txosten hori aurkeztu beharko dute 62 urte eta 2 hilabete edo gehiago betetzen dituztenek.

SEIGARRENA.- Eskaerak eta dokumentazioa aurkezteko epea.

Irakastorduak murrizteko/zuzeneko arreta murrizteko eskaera aurkezteko epea 2022ko martxoaren 1etik martxoaren 11ra artekoa izango da, biak barne.

Ebazpen honetan ezarritako epean murrizketa-eskaera egiten ez dutenek bertan behera utziko dute eskaera 2022/23 ikasturterako egiteko eskubidea.

ZAZPIGARRENA.- Emateari buruzko ebazpena.

- a) Eskabideak aztertu ondoren, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren behin-behineko ebazpena argitaratuko da.
- b) Behin-behineko ebazpenari alegazioak aurkezteko epea igarota, eta aurkeztutako alegazioak ikusita, hala badagokio, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren behin betiko ebazpena argitaratuko da.
- c) Eskatutako murrizketak onartu edo ukatzeko ebazpena Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratuko da, jakinarazpenaren ondorioetarako (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-saila/>).
- d) Murrizketa horri ezin zaio uko egin.

ZORTZIGARRENA.- Datu pertsonalen babesa.

Zure datu pertsonalak erabiliko dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio: Langileak kudeatzea.

Arduraduna: Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Helburua: Irakasle eta irakasle ez diren langileen kudeaketa.

Legitimazioa:

- Tratamendua beharrezkoa da, interesduna alderdi duen kontratu bat betearazteko.
- Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saileko lan-legepeko irakasle eta hezitzaileentzako hitzarmen kolektiboa (2004ko ekainaren 17ko EHAA).
- 2/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Herriko Autonomi Elkarteke Unibertsitateko kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoei buruzkoa.
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30koa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.



Hartzaileak:

- Estatuko Administrazioako beste organo batzuk.
- Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

Eskubideak: Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.

Informazio osagarria: Gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/048100-cap2-eu.shtml>

Araudia:

- Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>).
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673).

BEDERATZIGARRENA.- Errekurtsoak.

Ebazpen honen aurka demanda aurkeztu ahal izango da lan-arloko jurisdikzioan, argitaratzen denetik 2 hilabeteko epean, Lan Arloko Jurisdikzioa arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legearen 10.4.a) artikuluan eta 69. artikuluan (urriaren 1eko 39/2015 Legeak emandako idazketan) ezarritakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko otsailaren 28an

BLANCA GUERRERO OCEJO

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA